

FITXA: 218 - BIZKAIA - Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzak.

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalei.	
Deialdia: BAO - Bizkaiko Aldizkari Ofiziala	Deialdiaren data: 2026/03/30
Sarbide-esteka: https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera	
Erreferentziazko araudia: Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2026ko martxoaren 26koa. - https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/03/30/I-311_eus.pdf	
Eragin eremuak: Hirigintza	
Zenbatekoa: 1.200.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/31	Aurkezteko azken eguna: 2026/10/15
Aurrerakina: Ez da zehaztu	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu

Laburpena

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntza jaso dezaketen hirigintzako agiriak:

- Plangintza orokorra erabat edo partez berrikustea Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko.
- Plangintza orokorrak egiteko beharrezkoak diren lan eta azterlan osagarriak, bereziki ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzkoak; izan ere, ebaluazio hori eskatu beharrekoa da, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera (haren bidez, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen da).

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Udalerriaren plangintza orokorra berrikusteko hirigintza-tresna egiteko kostuak finantzatzeko emango da dirulaguntza, betiere berrikusteko hirigintza-tresna hori zerbitzuen administrazio-kontratu bidez gauzatzen bada.

Gastuetarako aldi hautagarria

Udalek hiru hilabeteko epea izango dute, dirulaguntzaren abonua jasotzen dutenetik, aurkeztutako fakturen ordainagiriak aurkezteko.